



# ERAKUSLEAK

	<b>honek</b>	<b>honetan</b>
<b>hau</b>	hONeK	hONeTAN
hau	hONeK	hONeTAN
<b>hori</b>	<b>horrek</b>	
hori	hORReK	

# BESTELAKO ERABILERA



## ERLATIBO-PERPAUSA + ERAKUSLEA

Erlatibo-perpauzei lotuta, erakusleek (hau, hori, hura...) ohikoez bestelako erabilerak har ditzakete:

- oraina adieraztea,
- pertsona-izenordainak (ni, zu) ordezkatzeara.



# ERLATIBO-PERPAUSA + ERAKUSLEA

## — ORAINA: erlatiboa + honetan

- **Epaiketaren atarian gauden honetan**, berriro gogoratzen dut orduan gertatua.
  - **\*Orain** epaiketaren atarian gaudela, berriro...<sup>1</sup>
- Orain, **futbolean jokatzeari utzi diozun honetan**, jarraitzen duzu kirolik egiten?
- **Nor diren dakidan honetan**, nola jokatu behar dut orain horiekin?
- Orain, **laguntza-beharrean zauden honetan**, inork ere ez dizu laguntzarik emango.
- **Nafarroan aldaketa-haizeak jotzen duen honetan**, herritarrok jakin behar dugu zer proposamenek egituratuko duten aldaketa hori.



## ERLATIBO-PERPAUSA + ERAKUSLEA

— PERTSONA-IZENORDAINEN ORDEZ: ni › hau; gu › hauek

- **Irakurle inozoa naizen hau** poztu egin **nintzen** liburua laster argitaratuko zela entzun nuenean. (\*Ni irakurle inozoa naizela, ...<sup>1</sup>)
- **Batzordeko idazkaria naizen honek** hau ziurtatzen **dut**...
- Alkate jaunak, **idazkaria naizen honen** aurrean, fedea eman du...
- **Behean sinatzen dudan honek** materiala eskatzen **dut** honako hau egiteko...
- **Niri, mendia maite dudan honi**, horrelako lasterketek mila emozio sentiarazten **dizkidate**.
- **Horren erantzukizuna dugun hauek** ardura hartu behar **dugu** berriro gerta ez dadin.

<sup>1</sup> Kalkoa: "yo que..." 4



## ERLATIBO-PERPAUSA + ERAKUSLEA

— PERTSONA-IZENORDAINEN ORDEZ: zu › hori; zuek › horiek

- **Zuk**, delitu bat izan zela behin eta berriz esaten **duzun** horrek, frogatu behar **duzu** hala izan zela.
- Ba al **dakizu** **zuk**, unibertsitatera joango **zaren** horrek, edo hara heldu berri **zaren** horrek, edo, beharbada, jada ikasle izanik nazkatuta **zauden** horrek, zertan eragingo dizun?
- Oena opa dizugu **gure laguna** **zaren** horri.
- Kreaioa **zure**, haren egile **zaren** horren, zerbitzura dago.
- **Zuek**, herriaren jabe sentitzen **zareten** horiek, erabaki duzue zer egin?
- Gipuzkoangazte.eus Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirola Zuzendaritzaren webgunea da; **zuretzat**, **Gipuzkoan haur**, **nerabe** edo **gazte** **zaren** **horrentzat** pentsatua.



# HASIERAKO AGURREAN (gutunak, mezuak...)

## — hori

- Andre **hori**:
- Jaun **hori**:
- Jaun/Andre **hori**:
- Lagun **hori**:
- Zuzendari **hori**:
- Zuzendari andre **hori**:
- Zuzendari jaun **hori**:
- Zuzendari jaun/andre **hori**:
- ...

